


## EAEko gazteen % 26k lagunekin euskara erabiltzen dute gaztelania bezainbeste, edo gehiago

### *Lagunartean euskara darabiltenen ehunekoa ez da aldatu azken urteotan*

Abenduaren 3a [Euskararen Nazioarteko Eguna](#) dela-eta, Euskadiko gazteek euskarari lagunartean ematen dioten erabilera-mailaren bilakaerari buruzko azterketa laburra eskaintzera dator Gazteen Euskal Behatokia.


2012an 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egindako inkesta baten emaitzen arabera, gazte horien % 26 euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago aritzen dira lagunetikiko harremanean. Balio hori antzekoa izan da 2004tik hona. Hain zuzen ere, urte horretan, % 27k ziotenez, euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen zuten lagunartean.

Lagunekin harremanetan aritzeko garaian, euskara gaztelaniaren hein berean edo handiagoan darabilten gazteen ehunekoa handiagoa da Gipuzkoan beste lurraldeetan baino: % 48, 2012an. Bizkaian, ehuneko hori % 17 da, eta Araban, % 12. Azken zortzi urteotan, adierazle honek bilakaera desberdina izan du lurralde bakoitzean: Bizkaian behera egin du, 2004ko % 21etik 2012ko % 17ra. Gipuzkoan eta Araban, ordea, gora egin du: Araban, 2004ko % 8tik 2012ko % 12ra, eta Gipuzkoan, 2004ko % 46tik duela urtebeteko % 48ra.



Datuak adin-taldean arabera aztertuz gero, zera ikus dezakegu: 15 eta 19 urte bitartekoak direla lagunekin euskara gehien darabiltenak: % 28 dira, hain zuzen ere, euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak. 20 eta 24 urte bitartekoengan, proportzioa % 26koa da eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 25koa.

2004tik honako bilakaerak erakusten du euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago mintzo diren gazteen ehunekoak apur bat igo dela 25 eta 29 urte bitartekoengan, baina jaitsi egin dela 15 eta 19 eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean.



Datu hauek eta biztanleria osoarenak alderatzen baditugu —Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak 2011n egindako [V. Inkesta Soziolinguistikoa](#)n argitaratuak—, konproba dezakegu euskararen erabilera lagunartean pixka bat zabalduago dagoela gazteengan (% 26), biztanleria osoan baino (% 21).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak [mundiala.net](http://mundiala.net) ataria ireki zuen azaroaren 20an. *Bidaliozu txio bat munduan zehar dabilen lagun bati* kanpaina munduko edozein txokotan, urrun nahiz hurbil, bizi den lagun bati tweet bat bidaltzeko gonbita da. Tweet bat, edo norberak nahi dituen guztiak, *#mundiala* hashtag-a daramala. Baldintza bakarra: tweet hori euskaraz izatea. Bidalitako mezu guztiak eta egin duten bidea mapa batean bistaratuko dira. Hartara, atariko mapan mundu osoko euskal hiztunen kokapenak identifikatuta geldituko dira, tweet bat bidali edo jaso den lekuan argi-puntu bat piztuko da eta.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

